




ekoetxea
Azpeitia

KUDEAKETA PLANA

2018/2019

1. AURREKARIAK: HISTORIA ETA IBILBIDEA



30 urteko ibilbidea du egun EKOETXEA Azpeitia izenarekin ezagutzen dugun ekipamenduak eta hiru etapa desberdin ditzakegu denbora honetan:

1987-1997: Umeentzako Museoa

XX. mendeko laurogeigarren hamarkada hasieran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Garraio eta Turismoko Sailak, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez eta Azpeitiko Udalarekin elkarlanean, Egibar baserriaren birgaitze lanak burutu zituen eta 1987ko ekainaren 5ean “Umeen Museoa” izenarekin ezagutuko zena ireki zuen. Estatu mailan, horrelako ezaugarriak izango zituen lehen ekipamendua izan zen.

Orduan, ekipamenduaren helburuak honako hauek izan ziren:

- Ingurumenaren oinarrizko ezagutzak zabaltzea metodo dinamikoago eta dibertigarriak erabiliz (Ukitzen ikasi)
- Bizi garen ingurunea eta Lurra planetaren jatorria eta garapenean gertatu izan diren fenomeno konplexuak era errazean denen eskura jartzea

Talde pedagogikoak ikastetxeetako irakasleekin egiten zuen lan zuzenean, gero haiek arduratuko ziren ezagutzak beren ikasleei zabaltzeaz.

1998-2007: Ingurugiro Etxea Museoa

1998: **Izen aldaketa:** Erakusketa aretoak birmoldatu eta berritu egin ziren eta “Ingurugiro Etxea museoa” izen berria jarri zitzaion ekipamenduari.

Izen berria ez ezik lan egiteko metodologia ere aldatu zen. Talde pedagogikoa zuzenean hasi zen ikasle taldeekin lanean.

Kudeaketa eta antolaketa eredua ere moldatu egin zen eta Udalak Ingurugiroetxea museoaren Zuzendariaren figura sortu zuen.

Erakusketa egokitu egiten da gizarteak pairatzen dituen ingurumen arazoengatik inguruko kontzientzia landu ahal izateko. Arazoengatik inguruko kontzientzia, jatorria ezagutu eta etorkizunean arazoei nola aurre egin izango diren epealdi honetako helburuak.

Erakusketa osoa lau aretotan konfiguratu zen:

- 1 Aretoa: Lurzorua, Atmosfera eta Ura
- 2 Aretoa: Biodibertsitatea, Landaredia, Itsas ertza, Ibaiak Materia eta Energia
- 3 Aretoa: Demografia, Hiri ekologia, Garraioa, Zarata eta jarduera ekonomikoak
- 4 Aretoa: Energia, Hondakinak, Kontsumoa, Garapen Jasangarria

Erabilera anitzeko aretoa (Bideoak, diaporamak, hitzaldiak,...)

Saso honetan, ingurumenari lotutako beste hainbat ekipamendu sortu ziren Euskal Herrian eta horren eraginez, publikoa banatzen hasi zen.

2008tik gaur egunera arte

Erakusketaren berrikuntza partziala egin eta fokua 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian jarri zen.

Aretoak berrantolatu egin ziren, espazioa eraldatu eta edukiak moldatuz, estrategiaren bost erronken arabera honako helburu hauek lortzeko:

- **Ingurumen hezkuntzako zerbitzuak eskaintzea**, Ikastetxeen ziklo desberdinen ingurumen curriculumean azaltzen diren beharrei erantzuteko.
- Ingurugiro Etxearen eskaintza integratzea, Eskolako Agenda 21 eta herrietako Tokiko Agenda 21en testuinguruan.
- 2002-2020 aldirako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategian ezarritako helmuguen betetze prozesuan laguntzea
 - 1 Helmuga: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea
 - 2 Helmuga: Baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
 3. Helmuga: Izadia eta Biodibertsitatea babestea
 - 4 Helmuga: Lurraldeko oreka eta mugikortasuna
 - 5 Helmuga: Klima aldaketaren eraginari mugak jartzea

Gizarteak, Ingurumen eta garapen jasangarriaren inguruan dituen informazio eta ezagutza premiei erantzutea, izan ere giza, ingurumen eta ekonomia arazoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira.

1. XEDEA

Azpeitiko, eskualdeko zein kanpoko publiko orori ingurumenaren eta gizartearen arteko harremanen inguruan ezagutza, sentikortze eta jabeartze baliabideak, aukerak eta esperientziak eskaintzea, modu dinamiko, erakargarri eta alialian, bertakotasuna ezaugarri

izanik eta beti ere, eguneroko bizitzan jasagarritasunarekiko erantzunkidetasuna modu xumean sustatzeko helburuz.



2. BALOREAK

Zein baloretan oinarritzen da Museoaren xedea?



3. 2017-2018 KUDEAKETA PLANAREN BALORAZIOA

2017an definitutako Estrategiaren arabera, honako honako hauek dira helburu nagusiak



Honako hauek dira hain zuzen ildo estrategikoak:

- IE.1 Ekoetxea Azpeitia Publiko Berrietara Zabaldu:** hezkuntza komunitatetik Azpeitia Ekoetxea ireki eta zabaltzeko.
- IE.2 Etxea eta ekipamendua egokitu:** erakusketa, espazioa eta bestelako elementuak aztertu eta berritu
- IE.3: Eskaintza osatu eta metodologia berritu:** eskaintza zabala eta integrala mantenduz, metodo pedagogikoan eboluzionatu.
- IE.4: Komunikatu, sarea eraiki eta elkarlanean aritzeko:** Azpeitian oinarrituta eta harago zabalduko dena.
- IE.5: Kudeaketa eta lan taldea:** funtzioak, antolaketa, kudeaketa eta baliabideak.

Hemendik aurrera, 2017-18rako aurreikusitako ekintzen balorazioa egiten da eta 2018-19rako aurreikuspenak ere.

1. ILDOA	PUBLIKO BERRIETARA ZABALDU. Hezkuntza komunitatearen fideltasuna mantentzea, ikastetxe berriak erakartzeko ahalegina eginez -bereziki eskualdekoak-. Asteaz zehar, talde eta kolektibo zehatzen parte hartzea gehitzea; adibidez eta zehazki, adineko pertsonen taldeak. Haur eta nerabeak erakartzea bere aisialdian: astebukaerak, oporraldiak, udalekuak. Familiak erakartzea, batez ere astebukaeratarako eta oporraldietako jarduerekin. Turisten bisitak.
P 1.1 Programa	2017-2022 eperako Ekoetxea Azpeitiaren funtsezko publiko objektiboen segmentazioa eta karakterizazioa.
Ekintza	Ekoetxea Azpeitiaren funtsezko publikoen azterketa eta karakterizazioa, hezkuntza komunitatea eta bestelako publikoak desberdinduz.
2017/18rako aurreikusia	<i>Epe laburrera, erakarri nahi ditugun publikoak identifikatu eta estrategia zehaztu (Urola Kosta Eskualdeko ikastetxeak, Azpeitian kokatuta dauden hiru turismo bulegoak eta Tren museokoa)</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Epe laburrerako, Urola Kosta eta Urola Erdiko ikastetxeak, Turismo bulegoak eta familia eta nerabeen taldeak identifikatu eta aukeratu dira.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Urola Erdia eta Urola Kostako 3. adineko eta emakume taldeetako publikoak eta hauei Ekoetxean egingo zaien eskaintza zehaztea. Ikastetxe mailan, Urola Garaiko ikastetxeekin harremana sortu eta bertara aurrez aurreko bisitak egitea</i>
Ekintza	2017-2022 eperako desberdindutako publiko bakoitzarentzat urteko bisitari kopurutan helburuak definitzea.
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen aurreikuspenik</i>
<i>Balorazioa</i>	.
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>2018-19rako behintzat, helburu honi ez zaio jarraipenik egingo</i>
Ekintza	Publiko objektibo berri horien erakartze aktiboa –jarduera programaren bidez eta komunikazio planarekin koordinatuta-.
2017/18rako aurreikusia	<i>2017/2018rako Publiko objektiboarekin zuzeneko harremanak izan (bisitak, ate irekiak,...) gure eskaintza azaldu eta beraien premiak jasotzeko</i>

<i>Balorazioa</i>	<p><i>Aurrez aurreko bisita bidez, Urola kosta eta Urola Erdiko ikastetxeetan, Azpeitiko Turismo bulegoetan eta Trenaren museoan gure eskaintza aurkeztu dugu.</i></p> <p><i>Erantzuna eskasa izan da; izan ere kontaktatutako 18 ikastetxetatik 7k onartu zuten guk bertara joateko luzatutako aukera eta horietatik 3 etorri dira. Bestalde, Ate Irekietarako gonbidapena luzatu genien azaroaren 29rako, baina ekimena bertan behera geratu zen ikastetxeentzat ez zelako data egokia (ikasleen azterketak, irakasleen azterketa medikoak...).</i></p>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<p>2018/2019rako publiko objektiboarekin zuzeneko harremanak izan (bisitak, ate irekiak,...) gure eskaintza azaldu eta beraien premiak jasotzeko.</p> <p>Euskal herriko ikastetxe guztietara mailing-a egingo da: katalogo berria eta izen emate orria bidaliko da, baita aisialdi, 3. adineko eta emakume taldeei ere.</p>
Programa	P 1.2. Ekoetxea Azpeitiaren publikoen ezagutza.
Ekintza	Asebetetze inkestan lanketa bisitariekin: familiak, taldeak, astebukaeretak erabiltzaileak, oporraldietan joaten direnak... Honako informazio mota jaso eta sistematizatuz: adina, jatorria, generoa, Ekoetxeara gerturatzeko arrazoiak, informazioa nondik iritsi zaien, bisitaren balorazioa...•
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Balorazio inkesta berria diseinatu komeni zaigun informazioa jaso eta beste Ekoetxeetako irizpideekin bat eginez</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Oraingoz ez da gauzatu. IHOBEn erantzunaren zain gaude. Ihoberi zirriborroa bidali zitzaion baina ez daukagu erantzunik. EGOERA EZ EGOKIA.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Balorazio inkesta berria diseinatu komeni zaigun informazioa jasoz eta beste Ekoetxeetako irizpideekin bat eginez. Bitartean, geuk sortutako behin-behineko inkesta erabiltzen hasiko gara.</i>
Ekintza	Ekoetxeakoak antolatzen dituen jardueren berri jaso nahi duten pertsonen datu basea sortu eta mantentzea.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Lehen urratsak ematen hasi</i>

<i>Balorazioa</i>	<i>Datu basea oraingoz ez da gauzatu, baina interesgarria iruditzen zaigu egitea. Ez dugu informazio osatua balorazioa egiteko.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Datu basea sortu antolatzen ditugun tailerretan parte hartzeko interesa duten guztiekin.</i>
<i>Ekintza</i>	<i>Ekoetxea Azpeitiaren lagunen sarea sortzea.</i>
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>IHOBEren komunikazio Planaren baldintzapean Lagunen sarea sortzeko web orria beharrezkoa ikusten da. KOMUNIKAZIO PLANAREN EGOERA AZTERTZEA DERRIGORREZKOA IKUSTEN DA.</i>
Programa	P 1.3. Ekoetxea Azpeitiaren egokitzapena funtsezko publiko objektibo berrietara.
<i>Ekintza</i>	Irekiera ordutegiaren berrikusketa eta optimizazioa publiko objektiboen eta urtean zehar garatu beharreko ekintza programaren arabera..
2017/18rako aurreikusia	<i>Egutegia eta ordutegiak aztertu (lan egunak; ordutegiak; Uda/Negua desberdindu ala ez...)</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Larunbateko eta abuztuko arratsaldeetako ordutegia aldatu ditugu: irekiera ordu erdi bat atzeratu eta itxiera ordubete. Bestalde, zubietan orain arte hezitzaile batek egiten genuen lan eta orain birek. Azkenik, udako programa hobeto kudeatzeko, geure udako oporrak Ekoetxeako beharretara moldatu ditugu. Asistentzia datuetan igoera nabarmenik egon ez bada ere, ordutegi horrekin jarraitzea egokia iruditzen zaigu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Ekintza bukatutzat ematen da. Datorren urtean ordutegi berri horrekin jarraituko dugu.</i>
<i>Ekintza</i>	Ekoetxearako maskota edo antzeko zerbaiten behararen azterketa. Bere garaian Dinotxu elementu interesgarria izan zen eta Umeentzako Museoa identifikatzen lagundu zuen.
2017/18rako aurreikusia	<i>Xaguxatar parkean oinarritu eta ekipamenduaren gidari izan daitekeena, Xixto maskota</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Ez dugu beste maskota berri baten beharrik ikusten.</i>

<i>Hurrengo urtera begira</i>	Ekintza bukatutzat ematen da
2. ILDOA	ETXEAN ETA EKIPAMENDUAN ALDAKETAK EGIN. Etxean zenbait hobekuntza aurrera eramatea – Ekoetxea Azpeitiak bilatzen duen irekiera prozesuarekin bat eginez; eta eraikin jasangarri bati dagozkion baliabideen erabilerari lotutako eraginkortasun neurriak barneratzea –baserria bera adibide hartuta- . Erakusketaren edukiak berrikusi eta eguneratzea Ekoetxearen irizpide pedagogikoekin bat. Ekoetxeako barruko espazioen erabilera aztertzea eta garatu nahi den eredu pedagogikoaren araberako hobekuntzak aurrera eramatea. Aukera berriak aprobeztatzea programa pedagogikoan txertatzeko: geotermia instalazio berria, Xaguxatar parkea, eraikina bera eta ingurunea.
Programa	P 2.1. Etxearen egokitzapena eta hobekuntza.
Ekintza	Ekoetxerako sarrera eta aterpearen azterketa eta osoko hobekuntza: sartzera gonbidatuko duen ate bat jartzea, gaurko erakusleigoaren egokitzapena.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Ateraren egokitzapena aztertu</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Aurrekontua eskatu da eta gauzatze lanak Ejren zain atzerapen handiegia darama. Horretaz gain, parkearen itxitura ezabatu da eremua publikoarentzat erabat irekia uzteko eta Udalak bide zaharrean egindako egokitzapen lanekin uztartu da. Parkearen erabilera handitu da eta positibotzat jotzen dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>EJ-ri eskatu atea lehenbailehen jar dezan.</i>
Ekintza	Etxearen eraginkortasuna areagotzeko hobekuntzekin jarraitzea; adibidez komunetan –ur kontsumoa murrizte aldera-
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>

<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Martxan zer jar daitekeen analizatu eta posible bada gauzatu</i>
Ekintza	Baserriko geotermia instalazioan egindako obrak osatzea.
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Geotermia instalazioa ez dago egoki. Zarata arazoak. IHOBEn ardurapean da konponketa egitea</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Martxan zer jar daitekeen analizatu eta posible bada gauzatu</i>
Programa	P 2.2 Ekoetxea Azpeitiako erakusketa iraunkorraren berrikusketa eta bertako espazioak optimizatzeko aukeren azterketa
Ekintzak	<p>Erakusketan aldatu eta hobetzeko beharren ikerketa zehatza.</p> <p>Erakusketa berriak izan beharko lituzkeen irizpide pedagogikoaren garapena: jolasaren erabilera, teknologia berriak eta abar.</p> <p>Erakusketari dagokionean eta aurreikusitako programazioari eta ezaugarri berriei erantzun emateko espazioan bertan eman beharreko aldaketen azterketa egitea –diseinatzen den jarduera programaren arabera-.</p> <p>Erakusketa hobetzeko eta espazioan beharrezkoak diren egokitzapenak egiteko proiektua gauzatzeko hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin.</p> <p>Erakusketa berriaren diseinuan, onarpen prozesuan eta beharrezkoak diren obren jarraipenean parte hartzea.</p> <p>Espazioen diseinu eta erabileran hobekuntzak barneratzea</p>
2017/18rako aurreikusia	<i>Ekoetxeako erakusketaren beharren azterketa bukatu. Ejak kontratatutako enpresarekin elkarlanean, aurreproiektua definitu eta EJ-rekin negoziatu beharreko Hitzarmenean inbertsio plan bat txertatu ahal izateko</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Ideaholiki enpresaren Proiektua aztertu da eta gure iritziz birmoldatu beharra dago ez delako egokitzen guk kudeatzen ditugun taldeen tamaina eta ezaugarrietara.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>EJ-rekin batera proiektuaren definizioan parte hartu. 2019an proiektua bukatu eta gauzatzen hasi.</i>

Programa	P 2.3 Kontsumo Gelaren etorkizun egokienari buruzko azterketa eta erabakia.
Ekintza	Urola Erdiko Lapatx Zaborteia, S.A.rekin azterketa bateratua, hezkuntzarako eta sentikortzeko baliabide gisara alternatiba egokiena bilatze aldera hartutako erabakiari lotutako ekintzak gauzatzea
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Azpeitiko Udalak UE-ko Lapatx Zaborteia S.A.rekin lankidetzak bideak ireki hondakinen kudeaketa zentroaren ingurumen hezkuntzako proiektua berritzeko</i>
Balorazioa	<i>Kontsumo gela berritzeko premia lantzeko bilerak egin dira baita, etorkizun laburrean Lapatx Ingurumen Eragilearekin (Aurrerantzean LIE) izango diren harremanak eta etorkizuneko proiektuak lantzen hasi gara</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>LIEko (Lapatx Ingurumen Eragilea) arduradunekin harremanetan jarraitu, Hondakinen Kudeaketa zentroaren aukerak aztertu eta programa berriak definitu</i>
Programa	P 2.4 Geotermia instalazioaren eta Xaguxatar parkearen garapena.
Ekintza	Ekoetxeak eskaintzen dituen jarduera-programara eta bisitetara gehitzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzea bi instalazio horietan.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Xaguxatar parkeko programa didaktikoa diseinatu (lan fitxak, ekintza osagarriak, e.a.), Geotermia instalazioaren inguruko formazioa jaso, erakusketan geotermia lantzeko "txokoa" diseinatu eta maila desberdinetara egokitutako programa didaktikoak diseinatu</i>
Balorazioa	<i>HH-tik DBH2. ziklora zuzendutako Xaguxatar parkeko programa didaktikoak (ziklo bakoitzak ditu bere aurre-jarduera, jarduera eta ondorengo jarduera) operatiboak daude. Programa didaktiko hauek baliabide egokiak dira. Bestalde, Geotermiari buruzko materialari dagokionez, IHOBK ez ditu gauzatu ez material didaktikoa eta ezta erakusleihoko infografia eta biniloak ere. Atzerapen ikaragarria da Geotermiari buruzko programa lantzeko.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Geotermiari buruzko material didaktikoa eta formazioa IHOBK errekamatzea.</i>

Programa	P 2.5 Ekoetxea Azpeitiaren eskaintzara instalazio berriak gehitzearen inguruko bideragarritasun azterketa egitea.
Ekintza	Baratza jarduera osagarrien programara gehitzeko aukerak aztertzea.
2017/18rako aurreikusia	Gehitu daitezkeen instalazio berrien azterketa egin. Epe laburrean Baratza ekintza bideragarriena ikusten denez, aipatutako ekintza Ekoetxeako programetan nola txerta daitekeen aztertu eta programa diseinatu
<i>Balorazioa</i>	<i>Aurten lehen urratsak eman dira , lana burutu dezakeen baserritarrarekin harremanetan jarri gara. Ez da posible izan martxan jartzea. Helburua ez da bete. Balorazio negatiboa egin dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Baratza ekintza Ekoetxeako programan txertatzea eta programa diseinatzea.
Ekintza	Inguruko biodibertsitatea –erreka, mendiak, landaretza...- ezagutzen lagunduko duten ibilbideak gehitzeko aukerak aztertzea.
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Aurreikusita ezer ez bazagoen ere, Xaguxatar bidea diseinatu eta gauzatzeko aurreproiektua egin da. Gainera, Loiolako zuhaitzak ezagutzeko jarduera ludiko bat ere diseinatua da (Loiolako zuhaitzak ezagutzen. Baliabide aberatsa iruditzen zaigu Loiolako parkeko zuhaitzak ezagutzeko martxan jarri den baliabidea. Bai ikastetxeek, bai Ekoetxeako talde pedagogikoak ere, modu positiboan baloratzen dugu jarduera.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Xaguxatar bidea gauzatzen denean eskaintzan txertatu
Ekintza	Ekoetxea Azpeitiaren eskaintza Tren Museoarenarekin lotzeko egon daitezkeen aukerak aztertzea –adibidez alokairuzko bizikleta sistema bat martxan jarriz-.
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Xaguxatar bidearen potentzialitatea aztertu helburu hau lortzeko

3. ILDOA	ESKAINZA ETA METODO PEDAGOGIKOA BERRITU. Eskaintzen diren programen metodologia pedagogikoa aztertu, birpentsatu, irizpide berriak finkatu, egokitu eta modu erakargarrian dokumentatzea. Ekoetxea Azpeitiaren eskaintza eta ezaugarriak sendotu eta sustatzea, metodo pedagogikoarekin koherentzia eta arreta zaindua eta pertsonalizatua mantenduz. Astebukaeretako ekintza programa osatu eta martxan jartzea. Udako eta oporraldietako eskaintza planifikatzea, publiko objetiboek zuzenduta. Ekoetxea Azpeitiaren esperientziatik Eskolako Agenda 21 programaren aldaketa eta hobekuntza prozesuari ekarpena egitea.
Programa	P 3.1 Datozen 5 urteetan Ekoetxea Azpeitiaren eskaintzan garatu nahi diren irizpide pedagogikoen definizioa, Ekoetxearen misio eta baloreekin bat.
Ekintza	Beste esperientzia/kasu batzuen azterketa, ondorio batzuk ateratze aldera.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Irizpide pedagogikoen identifikazio bateratua, eta horretarako interesgarria litzateke beste esperientzia batzuk aztertzea</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Ekoetxea Urdaibaiko eskaintza eta lan dinamika ezagutze aldera, bertan izan ginen martxoaren 21ean. Bestalde, Azkoitian kokatzen den BIZILORE eskola aktiboa bisitatu genuen beraien lan egiteko moduak ezagutzeko eta aldi berean gure eskaintza azaltzeko. Aberasgarria iruditzen zaigu esperientzia berriak ezagutzea.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Ekipamendu berriak ezagutzen jarraitzea (Bergarako Laboratorium, Txingudiko Ekoetxea, Ataria,...)</i>
Ekintza	Etapa berri honetarako irizpide pedagogikoen identifikazio bateratua – lantalde osoak, talde pedagogikoa barne-. Adibidez: jolasaren bidezkoa izatea, parte hartzea sustatzea, sormena eta esperimentazioa ardatzak izatea
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>HUEZIrekin harremanetan hasi, etorkizunera begirako elkarlana sustatzeko (esperientzia pedagogiko berriak, graduondoko lanak, master ondoko</i>

	lanak, e.a) Formazio plan bat diseinatu talde pedagogikoarentzat
PROGRAMA	P 3.2 . Hausnarketa estrategiko honetatik eratorritako beharrei egokitutako formakuntza plana Ekoetxea Azpeitiako lantaldearentzat.
Ekintza	<ul style="list-style-type: none"> • Formakuntza beharren identifikazioa. • Ekoetxea Azpeitiako lantaldearentzat bereziki diseinatutako formakuntza-ibilbideen garapena
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	Formakuntza beharren identifikazioa
<i>Balorazioa</i>	<i>Ez da ezer egin honen inguruan.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Talde pedagogikoak formazio beharren zerrenda osatu, formazio-plangintza egin eta gutxienez bina formazio saiotan parte hartu
Programa	P 3.3 Ekoetxeakoak dagoeneko eskaintzen dituen programen berrikusketa, badagokio hobekuntzak barneratuz, definitutako irizpide pedagogikoetan oinarrituz.
Ekintza	Barneratu beharreko aldaketa eta hobekuntzen identifikazioa.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	Programa bat aukeratu eta irizpide pedagogiko berriak txertatzen saiatu
<i>Balorazioa</i>	<i>Uraren arloan lehen zikloetarako baliabide berri bat sortzeko lehen urratsak eman ditugu. Pauso hau ematea garrantzitsua iruditzen zaigu, nahiz eta helburua bere osotasunean bete ez izan.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Uraren programaren garapenean irizpide berriak txertatuko ditugu.
Ekintza	Dagoeneko existitzen diren programen egokitzapena dinamika berriak, proposamen metodologiko desberdinak... barneratuz.
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>
<i>Balorazioa</i>	.

<i>Hurrengo urtera begira</i>	Ez da ezer aurreikusten
Ekintza	Hezkuntza komunitateko irakaslegoarekin izan den gertuko harreman zuzena eta zaindua mantentzea
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita ohiz egiten delako</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Harremana oraingoz eginda dago eta mantentzea garrantzitsua ikusten dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Harremanak mantendu eta sakondu
Programa	P 3.4 Eskaintza eta programa berrien diseinua.
Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Geotermia instalazioari lotutako programa pedagogikoaren diseinua. • Xaguxatar parkeari lotutako programa pedagogikoaren diseinua • 2017-2022 epeari begira aukera berrien ikerketa eta garapena: baratza eta elikadura, biodibertsitatea ezagutu eta lantzeko. ibilbideak, mugikortasun jasangarria eta Tren Musearekin lotura posiblea
2017/18rako aurreikusia	<i>Eskaini daitezkeen programa/jarduera berrien zerrenda osatzea</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Geotermiak ez du programarik oraingoz eta eskaini daitezkeen programa/jarduera berrien "zerrenda" osatu gabe dago. Beharrezkoak dira eta osatu behar dira.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Programa/jarduera berrien zerrenda osatzea. Paraleloki, Baratzera bisitak eta Xaguxatar bidearen programa berriak txertatuko dira Ekoetxearen eskaintzan. Bestalde, Geotermia programa txertatu ahal izateko IHOBek bere ardurapean duen diseinua bukatu egin beharko du.
Ekintza	Azpeitiko edo eskualdeko beste eragile edo pertsonekin lankidetzan eskaintza berria osatzeko dauden aukerak aztertzea
2017/18rako aurreikusia	<i>Ez zegoen ezer aurreikusita</i>

<i>Balorazioa</i>	<i>Azpetiko hainbat eragilerekin elkarlana gauzatu dugu, esate baterako, Azpetiko Udaleko Turismo eta Gazteria Sailekin, Arte eta Diseinu Eskolarekin, Urkome eta Iraurgi Berritzen erakundeekin eta Azpetiko Dendarien elkartearekin. Horrela, gainera, Ekoetxea Azpeitia herrian eta eskualdean ezagutzera eman dugu eta positiboki baloratzen dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Hasitako harremanak sendotu eskaintza berriak gauzatzeko
Programa	P 3.5 Asteburuetarako hiruhileko jarduera programazioaren diseinua eta garapena – Ekoetxearen funtsezko publikoen arabera-
Ekintza	Beste esperientzia batzuen azterketa ondorio batzuk ateratze aldera eta hiruhileko programazioen diseinua –gero Ekoetxea Azpeitiak garatzeko edo/eta beste eragile batzuekin lankidetzan-; beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak identifikatzea.
2017/18rako aurreikusia	Beste esperientziak aztertu ondoren, iraila-abendua programa ekintza berritzaileekin osatu eta martxan jartzea eta Urtarrila-Martxoa diseinatzea. (Behar bada ondo legoke, urte guztiko eskaintzaren hurbilketa egitea). Garrantzitsua asteburuko ekintzak zein maiztasunarekin egingo diren zehaztea eta irizpide bateratuen arabera diseinatzea.
<i>Balorazioa</i>	<i>Beste esperientziarik aztertu ez bada ere, hilero ekintza bat antolatu da Ekoetxean. Positiboa da gure ustez eskaintza osatu eta ikastetxez gain, beste publiko batzuetara zabaltzen dugulako.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Gutxienez hilean behin asteburutarako ekintza berezi bat antolatzea eta hauek antolatzerakoan jarraitu beharreko irizpideak definitzea eta gauzatzeko baliabideak zehaztea.
Ekintza	Garapena eta ondorengo ebaluazioa
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	<i>Tailerren garapena eta ebaluazioa egin da eta positiboa izan da.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Ekintzen memorian balorazioa barneratu.
Programa	P 3.6 . Uda parterako programazio baten diseinua eta garapena: udalekuak eta bestelako programak.
Ekintza	Beste esperientzia batzuen azterketa, ondorio lagungarriak ateratze aldera.

2017/18rako aurreikusia	Beste esperientziak aztertzea
<i>Balorazioa</i>	<i>Azpeititik kanporako beste esperientziarik ez da aztertu beharrezkoa ikusten da beste esperientziak aztertzea</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Beste esperientziak aztertzea
Ekintza	Udako programazioaren oinarrian egon behar duten irizpideen definizio bateratua: udalekuak eta bestelako programak.
2017/18rako aurreikusia	Ez zegoen ezer aurreikusita
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Irizpideak definitu.
Ekintza	Jardueren diseinua –Ekoetxea Azpeitiak gauzatzeko edo/eta beste eragile batzuekin lankidetzan-; beharrezkoak diren baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak identifikatzea, honen garapena eta ebaluazioa
2017/18rako aurreikusia	Ez zegoen ezer aurreikusita
<i>Balorazioa</i>	<i>Aurreikusita ezer ez bazegoen ere, Udako programa diseinatu da uztailearen 2-tik 20ra gauzatzeko. 3-12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Programa 3 kategoriatan sailkatu da adinaren arabera: 3-5 urte/6-10 urte/11-12 urte. Udako programaren garapena eta ebaluazioa egin dira. Programa honekin jarraitu behar dugula pentsatzen dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Programa	P 3.7 Eskolako Agenda 21 programa mantentzea eta beharrezkoak diren hobekuntzak barneratzea.
Ekintza	Ingurugelarekin elkarlana programaren diseinuan eta kudeaketan landu daitezkeen hobetzeko arloak identifikatzeko.

2017/18rako aurreikusia	Ez zegoen ezer aurreikustia 2017/18rako
<i>Balorazioa</i>	<i>Ezer aurreikusita ez bazegoen ere, EJ-ak Ingurugelekin batera EA21 berritzeko martxan jarri zuen prozesuan, Azpeitiko Udala eta Ekoetxea Azpeitia partaide izan ziren. Prozesua bukatu da eta ez da ondorio garbirik atera. Eraitzen azken txostenaren zain gaude.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Ekintza hau bukatutzat emango dugu.
Ekintza	Eskolako Agenda 21 programaren urteroko garapena –urtez urte behar diren egokitzapenak eginez-
2017/18rako aurreikusia	Ondo funtzionatzen duten eta hain ondo funtzionatzen ez duten aspektuak aztertzea
<i>Balorazioa</i>	<i>EJK abian jarritako prozesuan parte hartu badugu ere, komunean ez dugu barne hausnarketarik egin.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Ez da ezer ere aurreikusten
4. ILDOA	<p>KOMUNIKAZIOA ETA SARETZE LANA.</p> <p>Ekoetxea Azpeitiaren komunikazioa garatzea. Zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekoetxea Azpeitia marka lantzea Eusko Jaurlaritzarekin batera. • Komunikazio plan bat diseinatu eta garatzea bere osotasunean. • Sare sozialetan presentzia gehiago bultzatu. <p>Saretze lana egin eta harremanak garatzea maila desberdinetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udaleko sail desberdinekin. • Eskualdeko beste ekipamendu osagarriekin. • Ekoetxeen sarearekin. • Euskal Herriko antzeko beste ekipamendu batzuekin –Eusko Jaurlaritzak bultzatuta-.
Programa	P 4.1 Ekoetxea Azpeitia markaren garapena, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.
Ekintza	<ul style="list-style-type: none"> • Azpeitiko zentroaren balio bereizgarrien identifikazioa.

	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezko aldaketak barneratzea seinaleztapenean, eraikin barruan, Ekoetxeako dokumentazioan • Aldaketaren eta haren arrazoien berri azpeitiarrei ematea, egokitzapena ezagutu eta uler dadin
2017/18rako aurreikusia	Markaren aplikazioa eta señaletikaren jarraipena egin. Osagarriak diren instalazioak Markaren barruan txertatu behar dira
<i>Balorazioa</i>	<p><i>Eraikin barruan eta dokumentazioan seinaleztapena aldatu da.</i></p> <p><i>Ekoetxea Azpeitiako ekipamendu osagarrietan, berriz, seinaleztapena IHOBek gauzatu behar du eta urtebeteko atzerapena darama.</i></p> <p><i>Honekin guztiarekin amaitzea beharrezkoa ikusten dugu.</i></p> <p><i>Horrez gain, Ekoetxeen Sareko seinaletika zein Komunikazio Grafikoko Elementuen Diseinu Gida ere partekatzen ditugu beste Ekoetxeekin.</i></p> <p><i>IHOBEtik ezarritako pautak jarraitzen ditugu.</i></p>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	IHOBEren egin beharren zain. Nabarmena da arlo honetan bere atzerapena
Programa	P 4.2 Komunikazio plana.
Ekintza	<ul style="list-style-type: none"> • Planaren helburu zehatzen definizioa. • Funtsezko publikoen identifikazioa –Ekoetxearen eskaintza berriaren arabera-. • Komunikatu beharreko mezuen zehaztapena, publiko bakoitzarentzat. <p>Erabili beharreko kanalen hautaketa, publiko desberdinentzat.</p>
2017/18rako aurreikusia	<i>Komunikazio planaren helburu zehatzen definizioa, funtsezko publikoaren identifikazioa (P 1.1 programarekin lotuta) eta erabiliko diren kanalen hautaketa.</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Komunikazio Planaren diseinuaz, IHOBEn arduratu zen, lau Ekoetxeentzat balioko zukeena diseinatzea erabaki zuelako EJ.</i>

	<i>Ez da ezer aurreratu gai honetan. Duela urte bete geunden egoera berdinean aurkitzen gara. EGOERA TAMALGARRIA</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Komunikazio Plana definitu eta gauzatzen hastea, eskatzea EJ eta IHOBeri.
Ekintza	Plana garatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabideen zehaztapena eta soluzio egokien bilaketa.
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	<i>Komunikazio Planarekin lotuta dago erabat.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Ekintza	Komunikazio ekintzen garapena.
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	<p><i>Komunikazio planaren faltan, erabaki zen hileroko antolatzen diren ekintzen berri emateko bi formatu erabiltzea: Hiruhileko ekintzen eskuliburua eta Hileroko ekintzen kartelak argitaratzea (Paperean eta formatu digitalean). Bi formatu hauek egokiak iruditzen zaizkigu informazioa zabaltzeko.</i></p> <p><i>Eta Plana garatzen den bitartean, ikastetxeekin kontaktatzeko mailing-sistema berrikusi da, eta katalogoa formatu digitalean eta paperean argitaratzea erabaki. Katalogo egiteko esleipen prozesua martxan jarri da.</i></p> <p><i>Ekintza eta tailer guztien komunikazioa kanal desberdinen bidez egiten da:</i></p> <p><i>Ekoetxeako web orriaren bidez.</i></p> <p><i>Azpeitiko Udaleko Komunikazio arduradunaren bitartez</i></p> <p><i>Informazio hau ere Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako ikastetxeetako zuzendari eta EA21eko koordinatzaileei bidaltzen diegu.</i></p> <p><i>Azpeitia, Zumaia eta Zarauzko Turismo Bulegoen eta Zestoako Ekainberriren bidez.</i></p> <p><i>Erabilitako kanalak mantentzea egokia iruditzen zaigu, baina sare sozialak erabiltzen hastearen beharra ikusten dugu. Azken urteotan mailing-a</i></p>

	<i>euskarri digitalean egin dugu, baina paperezko euskarrian ere egiteko premia nabaritu dugu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Komunikazio Plana idatzi bitartean, komunikazioa oraingo tresnekin, hau da, gure baliabideekin egiten jarraitzea.
Ekintza	Haien eraginaren ebaluazioa.
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Programa	P 4.3 Ekoetxea Azpeitiako webgunearen etengabeko eguneratzea eta sare sozialetan presentzia.
Ekintza	Komunikazio planaren helburu eta edukiekin koordinatuta.
2017/18rako aurreikusia	<i>Komunikazio planean eginiko kanalen hautaketaren arabera, gauzatzen hasi</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Komunikazio plana egin ez bada ere, etengabe eguneratzen da www.ingurujiroetxea.org web orria. Bertan ekintzen berri eta hauen garapenari buruzko informazioa ematen da. Bestalde, wathsapp bidez ere bideratzen da tailerren komunikazioa. Web orria kanal egokia iruditzen zaigu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Sare sozialen erabilera martxan jartzea
Ekintza	Eragina neurtzea ahalbidetuko duten jarraipen-adierazleak definituz.
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	<i>Hilero jasotzen da Ekoetxeako web orrira egindako bisiten kopuruaren informazioa. Pixkanaka bisitari kopurua igotzen ari da.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	2017-2019 balorazioa egin
Ekintzak	Beharrezkoak diren baliabideen identifikazioa eta “soluzio imaginatiboak” bilatzea

2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Programa	P 4.4 Azpeitiko eta Eskualdeko eragileekin lankidetzak bilatzea.
Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Udaleko beste sail batzuekin koordinazioa eta lankidetzak aktiboa. • Azpeitiko eta Eskualdeko beste ekipamendu interesgarriekin lankidetzak aktiboa bilatzea • Azpeitiko eta Eskualdeko eragile, talde eta elkarteekin lankidetzak
2017/18rako aurreikusia	<i>Udaleko beste Sailekin lankidetzak sistematizatu. Identifikatu eskualdeko eta herriko zein eragileekin komeni den lankidetzak izatea eta lehen urratsak ematen hastea.</i>
<i>Balorazioa</i>	<p>Azpeitiko Udaleko ondorengo Sailekin eman ditugu lehen urratsak: Gazteria Sailarekin (ekainak 5eko ospakizuna Xaguxatar parkean ludotekako umeekin, Udako programa...). Turismo Sailarekin (Xaguxatar bideari buruzko bilerak, Aste Santuko programazioa)</p> <p>Elkarlana beti izaten da aberasgarria.</p> <p>KulturAZ (Urola ibaiari buruzko dokumentalaren proiektzioa Soreasu antzokian. Urkomerekin (baserrietara bisitak), Tailerren antolakuntza: Arte y Diseño, Iraurgi Berritzen, Merkatarik elkarlana...Elkarlana positiboa izan da.,</p>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Aipatutako eragile horiekin guztiekin elkarlana egiten jarraitzea eta gainera <i>Plazatarrak</i> ekimenean parte hartzea
Programa	P 4.5 Ekoetxea Azpeitia parte den lan-sareetan parte hartze aktiboa.
Ekintza	Eusko Jaurlaritzako Ekoetxeen sarean parte hartze aktiboa.
2017/18rako aurreikusia	<i>Ekoetxeen sarean parte aktiboa hartu eta Euskadiko beste ekipamenduen sarean integratzea lortu</i>

<i>Balorazioa</i>	<i>Egin diren bileratan parte hartu dugu eta interesgarria iruditzen zaigu hainbat ideia partekatzeko eta besteen lanaren berri izateko.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Dinamika berdinarekin jarraitu. Bileratan eta amankomunean antolatuko diren ekintzatan parte hartu.</i>
Ekintza	Euskadiko ingurumen hezkuntzarako ekipamenduen sarean parte hartze aktiboa.
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Ekintza	Estatuko edo/eta Europako beste zentroetan egiten ari diren lanaren jarraipena: ideia eta praktika onak bilatzea
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
5 ILDOA	KUDEAKETA ETA LAN TALDEA. Ekoetxea Azpeitiarekiko Eusko Jaurlaritzaren finantzazioa eta babesa bermatzea datozen urteetarako. 2017-2022 estrategiarekin bat Ingurugiro Etxeko lantaldearen funtzioak eta ardurak argitzea. 2017-2022 plangintza estrategikoa gauzatzea ahalbidetuko duen urteko kudeaketa plana diseinatu eta garatzea. Lantaldearen egiteko erak birpentsatu eta garatzea.
Programa	P 5.1 Estrategia hau garatzeak eskatzen dituen beharren identifikazioa eta horren arabera funtzio eta arduren izendapena.
Ekintza	<ul style="list-style-type: none"> • Planetik eratorritako beharren eta funtzioen identifikazioa. • Ekoetxea Azpeitiako lantaldean funtzio eta arduren izendapena.
2017/18rako aurreikusia	<i>Zuzendariaren figura eliminatzeak ekarri dituen desorekak konpontzea. Zuzendariaren funtzioak nork eta nola beteko dituen argitzea.</i>

<i>Balorazioa</i>	<i>Zuzendari figura ez da etorkizunean egongo, bere ardurak lehendakariak hartuko ditu eta delegatu beharreko lanak delegatzea erabaki ere bai. Erabakiaren balorazioa hurrengo urtean egingo da.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Balorazioa egin
Ekintza	Zenbait zeregin “modu imaginatiboan” garatzea erraztuko duten soluzio desberdinen azterketa. Adibidez: zentroko “community managerra”, hezitzaileen laguntza jarduera zehatzetan...
2017/18rako aurreikusia	
<i>Balorazioa</i>	
<i>Hurrengo urtera begira</i>	
Programa	P 5.2 Ekoetxea Azpeitiako lantaldearen garapena.
Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Lantaldearen gaurko egiteko moduen azterketa eta berrikusketa bateratua. • Indarguneen eta hobetzeko arloen identifikazioa. • Hobetzeko arloak lantzeko formakuntza espezifikoa • Talde-lana eta lantaldea sendotzea erraztuko duten aldaketak barneratzea
2017/18rako aurreikusia	<i>Diagnostikoan identifikatu dira indarguneak eta hobetzeko arloak. Hobetu beharreko hainbat aspektu hautatu eta hobekuntza prozesuarekin hasi. (Ekintza hau, programa desberdinekin du zerikusia)</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Aldaketa ematen hasi da baina helburua lortzeko bidea luzea da.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Hobekuntza prozesuarekin jarraitzea
Programa	P 5.3 . Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena zentroaren finantziario partziala bermatzeko.
Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • 2017-2022 epean plan hau garatu ahal izateko beharrezko inbertsioaren azterketa ekonomikoa.

	<p>Planaren garapenari lotutako diru-sarrera eta finantziazio-iturri posibleen azterketa. Adibidez: tailerretan parte hartzeko sarrerak, udalekuak, enprekin lankidetzak (gizarte erantzukizun programen bidez), erakunde publikoekin lankidetzak...</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2017-2022 eperako finantziazio hitzarmenaren negoziazioa Eusko Jaurlaritzarekin
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<p><i>Hausnarketa prozesuaren ondorioak EJ-ko ordezkariari aurkeztea.</i></p> <p><i>Hitzarmenaren azterketa sakona egitea eta kontuan hartzen ez diren aspektuak txertatzea.</i></p> <p><i>2018-2020 urteetarako hitzarmenean, hiru urteetarako aparteko inbertsio plana txertatu, EJ-ak bere aurrekontuetan txertatu eta gauzatu dezan.</i></p> <p><i>Horretarako derrigorrezkoa izango da inbertsio-plana diseinatzea.</i></p>
<i>Balorazioa</i>	<p><i>Hausnarketa prozesuaren ondorioak eta Ekintza Plana EJ-ko ordezkariari aurkeztu genizkien.</i></p> <p><i>Hitzarmena negoziatu da. Sinadura faltan. EJ-ren diru aportazioa handitzea lortu da baina inbertsio plana bertan txertatzea ez da lortu ez eta giza baliabideak gehitzea. Halere, lorpena positiboa izan da.</i></p>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	Hitzarmenaren jarraipena egitea EJ-rekin batera.
Programa	P 5.4 Ekoetxea Azpeitiaren urteko kudeaketa plana.
Ekintzak	<ul style="list-style-type: none"> • Lantaldearentzat tresna baliagarria izango den kudeaketa plan on bat definitzeko aholkularitza. • Kudeaketa planaren urteroko garapena, definitutako funtzio, zeregin eta ardurekin koherentzia mantenduz. • Bere garapenaren etengabeko jarraipena
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Kudeaketa plana idaztea, definitu dugun planean azaltzen diren irizpideak txertatuz.</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Gauzatu da, baina formatu berrietara egokitzea zaila gertatzen ari zaigu.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<p>2018/2019 Kudeaketa plana definitu</p> <p>Hiruhileko jarraipen bilerak egitea</p>

Ekintzak	Urteroko ebaluazio partehartzailea: kudeaketa adierazleak, asebetetze inkesten tratamendua, lantaldearen balorazio kualitatiboa
<i>2017/18rako aurreikusia</i>	<i>Adierazleen kalkulua</i>
<i>Balorazioa</i>	<i>Alde batetik, kudeaketa adierazleak eta bestetik, bisitarien balorazio inkestak aztertzen dira. Gure lana hobetzeko tresna bat da, beraz, egokia da.</i>
<i>Hurrengo urtera begira</i>	<i>Beharrezkoak diren memoriak, kudeaketa planak, balorazioak...egiten jarraitzea.</i>

4. 2018-2019 URTERAKO PLANA

5. ADIERAZLEAK

ERANSKINA

2018-2019rako EKINTZAK